



Proiektu honek Europar Batasunaren Horizon 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren finantziazioa jaso du, hurrengo akordioaren bitartez: Zk. 883315.



SIXTHSENSE Proiektuaren Hasierako Bileraren (“Kick-Off”) Prentsa-Oharra

Donostian, 2020ko ekainak 10

Bizitzak salbatzen dituztenak babesteko salbamendu-teknologia

SIXTHSENSE europar proiektua, atzeraelikadura sentsoriala duen osasun-monitorizazio buruzkoa, Donostian abiarazi zen 2020ko maiatzak 19-20an.

Maiatzaren 19 eta 20an, Europar Batasunak finantziatutako **SIXTHSENSE** – “Smart Integrated eXtreme environmenT Health monitor with Sensory feedback for eNhdancing Situation awareNess” izeneko proiektua abian jartzeko bilera egin zen, bederatzi herrialdeetako parte-hartzaileek partekatutako espazio birtualean.

Proiektua diziplina anitzeko berrikuntza eta ikerketa ekintza bat da eta osasuna monitorizatzeko sistema eramangarri bat (zirkuitu itxiko ukipen bio-atzeraelikadura duena) garatzeko helburu orokorra dauka. Sistema horri esker, egoera arriskutsuetan dauden lehen erantzunerako arduradunek beren egungo osasun-egoera sentitu ahal izango dute. Aukera emango du arrisku-faktoreak garaiz atzemateko, lehen erantzunerako arduradunen osasuna edo gaitasunak ondatu ahal dituztenak. Horretarako biosentsore multimodaletan oinarritutako iragarpen-modeloez baliatuko da (adibidez, laktatoa, Na, K, HR, temperatura). Talde kudeaketarko tresna gisa ere erabili ahal izango da. Egindako eragiketa guztiak denbora errealean monitorizatzeko aukera emango du, eta taldearen eraginkortasuna eta segurtasun operatiboa handitzen lagunduko du.

Gainera, Lehen Erantzunerako arduradunei zuzendutako aurrerapen teknologikoen erritmoa azkartzekoa, proiektuaren helburuez gain, SIXTHSENSE-k ikerketa-metodologia berri bat garatu eta ezarriko du, lehen erantzunerako arduradunakin batera garapen partekatua era iraunkorrean sustatzeko.

SIXTHSENSEk Europar Batasuneko Horizon 2020 programak finantziatutako 7.242.442,5 euroko eta 36 hilabeteko proiektua da. TECNALIA Research & Innovation-ek koordinatutako proiektuaren partzuergoak Europako bederatzi herrialdeetako 21 erakunde biltzen ditu. Hiru unibertsitate: Aalborg Universitet (Danimarka), Universidad de León (Espainia) and Technische Universitaet Chemnitz (Alemania); Ikerketako eta Teknologiko Europako bost erakunde: TECNALIA (Espainia), Joanneum Research Forschungsgesellschaft (Austria), BioNanoNet Forschungsgesellschaft (Austria), Eucentre Foundation (Italia) and Tecnalia Serbia (Serbia); industria handiaren bi ordezkari: Jobst Technologies (Alemania) and Methrom DropSens (Espainia); eta bost enpresa txiki-ertain (ETE): Senetics healthcare group (Alemania), TeleGroup (Alemania), Smartex (Italia), Global Electronic Solutions (Serbia), BiFlow Systems (Alemania) with different areas of expertise. Horretaz gain, lehen erantzunerako hurrengo erakundeek ere parte hartze aktiboa dute: Serbiako Mendiko Erreskate Zerbitzua, Mendiko Erreskate Erakundeen Elkarte eta lau suhiltzaile talde: Gumpoldskirchen (Austria), Postojna (Eslovenia), Rijeka (Kroazia) and Pavia (Italia), eta sute erreskaterako entrenamenduan eta arriskuen kudeaketan aditua den erakunde bat - IFR (Austria).

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi proiektuaren webgunea <https://sixthsenseproject.eu/> eta <https://cordis.europa.eu/project/id/883315>.

Proiektu koordinatzailea: Goran Bijelic.

Nazioarteko Negozio Garapenerako Arduraduna

TECNALIA RESEARCH & INNOVATION

Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea



Proiektu honek Europar Batasunaren Horizon 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren finantziakoa jasotzen du, hurrengo akordioaren bitartez: Zk. 883315.

Mikeletegi Pasealekua, 2
E-20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN - Gipuzkoa
coordinator@sixthsenseproject.eu